

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### DONEMILIAGAKO UDALA

**Alkatearen 253 Dekretua, 2024ko azaroaren 15koa. Donemiliagako Udaleko administrazio orokorreko eskalako laguntzaileen azpieskalako administrari laguntzaile lanposturako behin-behineko izendapena, praktikaldian, funtzionarioen araubidean, 20/2021 Legearen 6. eta 8. xedapen gehigarrien ondoriozko iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko deialdiaren prozesuan**

Aintzat hartu dira Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen seigarren eta zortzigarren xedapen gehigarriak.

Deialdiaren oinarriak argitaratu ziren 2022ko abenduaren 14ko ALHAOn (143. zk.) eta 2023ko urtarrilaren 2ko ALHAOn (1. zk.) (hutsen zuzenketa), bai eta deialdiaren laburpen bat ere 2023ko apirilaren 28ko BOEn (101. zk.).

Abenduaren 28ko 20/2024 Legearen ondoriozko aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesuen kudeaketa esleipena Arabako Foru Aldundiaren esku utzi zen.

Alegazioak aurkezteko epean ez da alegaziorik aurkeztu behin-behineko puntuazioekin epaimahai kalifikatzaileak hartutako erabakiaren aurka.

Behin betiko puntuazioekin epaimahai kalifikatzaileak hartutako erabakia eta izendapen proposamena ikusita, honako hau izan da puntuaziorik handiena lortu duen izangaia: Ana María Díaz de Monasterioguren La Hidalga.

Izangaia aurkeztutako dokumentazioa aztertu da.

Bat etorri 14. eta 15. oinarrietan jasotakoarekin, eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 21.1.h) artikuluan xedatutakoaren babesean, hau

#### EBAZTEN DUT

**LEHENENGOA.** Behin-behinean izendatzea Ana María Díaz de Monasterioguren Lahidalga andrea (NAN: 16281839R) Donemiliagako Udaleko administrazio orokorreko eskalako administrari laguntzailearen lanposturako eta hari atxikitzea, funtzionario araubidean.

**BIGARRENA.** Lanpostua behin-behinean beteko du 3 hilabetez, probaldia edo praktikaldia egingo baitu, Donemiliagako Udalean, bat etorri abenduaren 28ko 20/2021 Legearen 6. eta 8. xedapen gehigarrien ondoriozko aldi baterako enplegua egonkortzeko hautaketa prozesuak arautzen dituzten oinarri orokorren 15. oinarrian ezarritakoarekin.

Izendapen horrek ebazpen honen egunetik aurrera izango ditu administrazio ondorioak.

**HIRUGARRENA.** Lanpostuaren atxikipena behin-behinekoa izango da praktikaldia amaitu arte, bat etorri deialdiaren 15. oinarriaren xedatutakoarekin.

**LAUGARRENA.** Aldi horrek irauten duen bitartean, praktiketako funtzionario izendatutako pertsonak normaltasunez beteko ditu bere egitekoak, eta dagozkion ordainsariak jasotzeko eskubidea izango du.

Praktikaldia amaitu eta, hala badagokio, gainditu ondoren, karrerako funtzionario izendatuko da, eta izendapena ALHAOn eta lege ezarritako beste edozein tokitan argitaratuko da.

BOSGARRENA. Funtzionario izendatutako izangaiak hilabeteko epea izango du, izendapena ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, legez ezarritako zin egitea edo hitzematea egiteko eta lanpostuaz jabetzeko, korporazioko idazkariaren aurrean. Zin egite edo hitzematerik egiten ez badute edo lanpostuaz jabetzen ez badira, eskubide guztiak galduko dituzte, ezinbesteko kasuetan izan ezik.

SEIGARRENA. Ebazpen hau interesdunei jakinaraztea, eta web orrian, udalaren ediktu taulan eta ALHAOn argitaratzea.

Erdoña, 2024ko azaroaren 20a

*Alkatea*

**ERIKA LETAMENDI HURTADO**